

Kaixo! Aspaldiko!

Zer moduz habil? Ba, nik espero nuen baino askoz okerrago. Ezin diat gehiago, nahikoa sufritu diat azken hilabete hauetan. Gero eta gogorragoa egiten zaidak egoera hau jasatea. Hasieran ez zitzaidaan kezkarria iruditzen, baina denborarekin konturatu nauk honek ezin duela horrela jarraitu. Tira, nik baino gehiago pairatu dik amak, egunero, behin eta berriz istilu berean sartuta.

Aita joan zenetik, ama ez duk pertsona bera izan, batez ere bere mutil-lagun berria ezagutu zuenetik. Amak beti izan dik irribarre eder bat aurpegian, baina azkenaldian ez zioat ikusi ezta behin ere. Hasieran oso jatorra iruditu zitzaidaan mutila, baina denbora pasa ahala gorrotoa zioat, baita neure buruari ere; ez nauk ausartzen tipo hau salatzen, eta noski, ama ere ez.

Hasieran erantzun desegokiak baino ez zituan, baina hortik gutxira oihuak hasi zituan, amari errieta egiten zioak egunero, behin baino gehiagotan. Ama ez duk konturatzen baina egoera jasangaitza duk etxeko guztientzat. Beldur nauk bihar apika ni eskolara noanean ama joko duelako, ez diat berarekin bakarrik utzi nahi. Zer egin dezaket? Beharbada berarekin hitz egingo diat gaur gauean.

Oso latza egiten zaidak ama triste ikustea, ez dik horrelakorik merezi, ez amak ez beste edozein emakumek. Penagarria iruditzen zaidak gaur egun emakumeak beraien burua horrelako egoeratan ikustea, horregatik guztiok bat egin behar diagu eta egoera mingarri hauek baztertu.

Bai, erabaki diat, bihar bertan nire amarekin hitz egin eta biok batera poliziarengana joango gaituk; nahiz eta gogorra izan, egin beharrekoa duk, ezin diat nire ama gizon horrekin gehiagotan ikusi.

Horregatik, lagun, eskatzen diat aurten amaren lekuan dauden emakume guztiei indar pilo ematea, baina batez ere ausardia, beraiantzat eta beraien ingurukoentzat, mina isilpeak gera ez dadin.